



EUSKO GUDAROSTEA 1936

memoria
lekua **LOIOLA** lugar de
memoria





Dana emon
biyar yako ...



EUSKO GUDAROSTEA 1936

memoria lekua **LOIOLA** lugar de memoria

1936ko uztailaren 17an, alderdi monarkiko eta faxistek lagunduta, Espainiako armadaren zati baten altxamendu militarren hasiera izan zen, Bigarren Errepublikako sistema demokratikoaren aurka. Handik aste gutxira, euskal abertzaletasunak indarrak bildu zituen Loiolan (Azpeitia), kolpisten aurkako euskal erresistentzia osatzeko.

El 17 de julio de 1936, apoyado por partidos políticos monárquicos y fascistas, fue el inicio de la sublevación militar de parte del Ejército español contra el sistema democrático de la Segunda República. Pocas semanas después, el nacionalismo vasco aglutinó sus fuerzas en Loiola (Azpeitia) para formar la resistencia vasca contra los golpistas.




EUSKO GUDAROSTEAREN SORRERA

1936ko abuztuaren 8an, erakunde abertzale demokratikoak, Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ), Eusko Abertzale Ekintza (EAE), Gipuzkoako Mendigoizale Batza (GMB), Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) eta Eusko Nekazarien Bazkuna (ENB), dozenaka herritar anonimorekin batera, Eusko Gudarostea sortu zuten Azpeitian.

"Euskal Aberria, Demokrazia, Askatasuna eta Justizia Soziala" lelopean, esperientzia militarrik ez zuten gazte horien zeregina Gipuzkoako sektore nagusiaren defentsa egitea izan zen.

Kandido Sasetak diseinatutako babes-sistemari esker (lubaki, parapeto eta aldi baterako beste eraikin batzuez osatua), matxinatuen eraso irailearen 19a arte gelditzea lortu zuten. Hala ere, matxinatuak militarki trebatuak zeuden, gehiago ziren eta arma hobeagoz hornituak zeuden.



LA CREACIÓN DE EUSKO GUDAROSTEA

El 8 de agosto de 1936, las organizaciones democráticas abertzales formadas por el Partido Nacionalista Vasco (PNV), Acción Nacionalista Vasca (ANV), Gipuzkoako Mendigoizale Batza (GMB), Solidaridad de Trabajadores Vascos (STV) y Eusko Nekazarien Bazkuna (ENB), junto a decenas de ciudadanos anónimos, crearon en Azpeitia Eusko Gudarostea.

Bajo el lema "Patria vasca, Democracia, Libertad y Justicia Social", el cometido de estos jóvenes voluntarios, sin experiencia militar alguna, fue la defensa del sector central de Gipuzkoa.

Gracias al sistema de defensa ideado por Cándido Saseta a base de trincheras, parapetos y otras construcciones temporales, lograron detener hasta el 19 de septiembre la agresión de los sublevados, a pesar de que estos estaban adiestrados militarmente, contaban con mayor número de efectivos y con mejor armamento.





I PROTAGONISTAK

Eusko Gudarostea prestakuntza militarrik gabeko milaka gaztek osatu zuten, Loiolara demokrazia eta euskal eskubideak defendatzeko prest joandakoak. Gutxienez, haietako hamar hil ziren borrokan: Mikel Alberdi García (29 urte, Tolosa), Jose Arana Irastorza (23 urte, Donostia), Simon Bereche Gorizule (Asteasu), Jose Joaquin Egaña Uria (19 urte, Azkoitia), Jacinto Elcoro Aranbarri (22 urte, Elgeta), Sebastian Etxeberria Pagaldai (23 urte, Eskoriatza), Koldobika Manero Aldako (20 urte, Erreenteria), Claudio Olabarri Olabarri (25 urte, Basauri), Pedro Rodríguez Puig (Bilbo), Aurelio Saratxaga Urreta (35 urte, Barakaldo) eta Florencio Zubiaur Goikoetxea (22 urte, Bilbo).

Gizonak fronteant borrokatu baziren ere, emakumeen lana atzealdean funtsezkoa izan zen miliziak sostengatzeko, batik bat arropak josten, instalazioak mantentzen eta janaria prestatzen. Geroago, gutxienez lau emakume epaituak izan ziren epaitegi militar frankistetan: Maria Josefa Altuna Astigarraga (21 urte, Azkoitia), Maria Arrieta Zubimendi (25 urte, Azpeitia), Maria Dolores Olaizola Alegria (Azpeitia), Gloria Zabaleta Olazabal (Azpeitia).



I PROTAGONISTAS

Eusko Gudarostea lo formaron miles de jóvenes sin preparación militar, que acudieron a Loiola dispuestos a defender la democracia y las libertades vascas. Al menos diez de ellos fallecieron en combate: Mikel Alberdi García (29 años, Tolosa), José Arana Irastorza (23 años, Donostia), Simón Bereche Gorizule (Asteasu), José Joaquín Egaña Uria (19 años, Azkoitia), Jacinto Elcoro Aranbarri (22 años, Elgeta), Sebastián Etxeberria Pagaldai (23 años, Eskoriatza), Koldobika Manero Aldako (20 años, Erreenteria), Claudio Olabarri Olabarri (25 años, Basauri), Pedro Rodríguez Puig (Bilbao), Aurelio Saratxaga Urreta (35 años, Barakaldo) y Florencio Zubiaur Goikoetxea (22 años, Bilbao).

Y si en el frente combatieron ellos, la labor de las mujeres en la retaguardia resultó fundamental para el sostenimiento de las milicias, sobre todo a través de la confección de ropas, el mantenimiento de las instalaciones y el servicio de cocina. Al menos cuatro mujeres fueron posteriormente juzgadas por tribunales militares franquistas: María Josefa Altuna Astigarraga (21 años, Azkoitia), María Arrieta Zubimendi (25 años, Azpeitia), María Dolores Olaizola Alegria (Azpeitia), Gloria Zabaleta Olazabal (Azpeitia).



GERRA-FRONTLEAN

Azpeitiko komandantziatik, Eusko Gudarosteko miliziek bi frontetan zabaldu zituzten bere boluntarioak: Bidania aldean eta Aiztondo bailaran. Bere indarrak talde txikietan banatzeari esker gudariak azkar eta etengabe mugitu ahal izan ziren, lubakien lerro estatikoetatik miaketa-operazioak eta sarraldiak eginez etsaiaren lurretan.

Benetako gerrilla-gerra bat izan zen, eta hari esker, Gipuzkoako lurraldea azkar konkistatzeko

armada kolpistaren asmo guztiek porrot egin zuten. Matxinatuek 27 egunetan Altsasu eta Asteasu arteko 50 kilometroak egin zituzten arren, Sasetak asmatutako estrategiari esker hilabete baino gehiagoz ez zuten kilometro bakar bat ere aurrera egin. Herritar haiek faxismoaren aurrean erakutsitako ausardiak euskal erresistentziaren ikur eta oroimenaren leku bihurtu ditu Azpeitiko Komandantzia, Loiolako kuartela, Zarateaitz, Santa Marina ermita eta Bidania inguruak.

EL FRENTE DE GUERRA

Las milicias vascas - Eusko Gudarostea desplegaron a sus voluntarios desde la comandancia de Azpeitia en dos frentes: el sector de Bidania y el valle de Aiztondo. La distribución de sus fuerzas en pequeños grupos permitió la rápida y constante movilidad de sus efectivos, avanzando desde las líneas estáticas atrincheradas en operaciones de reconocimiento e incursiones en campo enemigo.

Fue una auténtica guerra de guerrillas que hizo fracasar todos los intentos del ejército golpista de

conquistar rápidamente el territorio de Gipuzkoa. Si en apenas 27 días los sublevados habían avanzado los 50 km que separan Altsasu de Asteasu, la estrategia ingenida por Saset a no les permitió progresar ni un kilómetro durante más de un mes. La determinación mostrada por aquellas personas, ciudadanos y ciudadanas de a pie, ha convertido a la Comandancia de Azpeitia, al acuartelamiento de Loiola, Zarateaitz, la ermita de Santa Marina o las inmediaciones Bidania en lugares de memoria y símbolos de la resistencia vasca frente al fascismo.



1 Hernio


Herniok banatzen zituen hego/hego-ekialdeko sektorea eta Aiztondo bailarako babes-sistema. San Bartolome (Donostia) kuartelean zeudenak mendi horretara joan ziren, Loiolako gudariei borrokan laguntzera. Eusko Gudarosteak kontrolpean zeukan inguruko mendirik garaiena zenez, hango ikuseremuak toki estrategiko bihurtu zuen, lurraldearen defentsarako.

Hernio marcaba la divisoria entre el sector sur-sureste y el sistema defensivo del valle de Aiztondo. A este monte acudieron a combatir en apoyo a los gudarís de Loiola los acuartelados en San Bartolomé (Donostia). Al ser la cima más alta de la zona bajo control de Eusko Gudarostea, el campo visual que ofrece le convirtió en un enclave estratégico para la defensa del territorio.

2 Beizama

1936ko abuztuaren 10ean, Azpeitiko Komandantzia eratu eta bi egunera, Pablo Cayuela koronel kolpistak zuzendutako tropek Beizamako herria hartu zuten. Kolpe gogorra izan zen euskal milizientzat; izan ere, Eusko Gudarostearen kontrolpean zegoen lurraldearen erdian, Azpeititik 12 kilometrora, base militar bat ezartzea ekarri zuen.

El 10 de agosto de 1936, dos días después de la constitución de la Comandancia de Azpeitia, las tropas dirigidas por el coronel golpista Pablo Cayuela ocuparon la localidad de Beizama. Un duro revés para las milicias vascas, puesto que la incursión supuso el establecimiento de una base militar de los sublevados en medio del territorio controlado por Eusko Gudarostea, a 12 kilómetros de Azpeitia.



3 Bidania

1936ko abuztuaren 16tik 20ra bitartean, borroka gogorak izan ziren Bidanian Azpeitiko Komandantziako gudarien eta ezkerreko milizianoek bat eginik matxinatutako tropen aurka. 16an bertan hil zen Mikel Alberdi, EMBko (Euzko Mendigoizale Batza) buruzagia. Hilaren 20an, Eusko Gudarosteak udalerria guztiz kontrolpean hartu zuen, inguru horretako kuartel aurreratua ezarri Iriarte baserri-jauregian.

Entre el 16 y el 20 de agosto de 1936 Bidania fue lugar de duros enfrentamientos entre las tropas sublevadas y los gudaris de la Comandancia de Azpeitia junto a milicianos de izquierda. El mismo 16 falleció el dirigente de EMB (Euzko Mendigoizale Batza) Mikel Alberdi. La jornada del 20 Eusko Gudarostea se hacía con el control definitivo del municipio, estableciendo en el caserío-palacio Iriarte su cuartel avanzado en la zona.

4 Basopeta

Basopeta inguruan, Jose Ignacio Arsuaga Mendizabal gaztea hil zen “bala-tiro” baten ondorioz. 16 urte zituen eta Ulanberrokoa zen, matxinatuen eta euskal erresistentziaren artean liskarrak izaten ari ziren muinoan kokatutako baserrikoa, hain zuzen ere.

En las inmediaciones del paraje de Basopeta el joven José Ignacio Arsuaga Mendizabal falleció a consecuencia de “un balazo”. Tenía 16 años y era del caserío Ulanberro, situado precisamente en el collado donde se estaban produciendo escaramuzas entre los sublevados y la resistencia vasca.

5 Marea

Mareagainan, euskal erresistentziak lubakilerro bat ezarri zuen, eta hari esker, erreketen

erasoei aurre egin zion abuztuaren 24tik 28ra bitartean. Azkenean, hilaren 28an, matxinatuek behin betiko hartu zuten posizioa eta Belkoain mendi osoa.

En el Alto de Marea la resistencia vasca estableció una línea de trincheras que le permitió rechazar los ataques de los requetés entre los días 24 y 28 de agosto. Finalmente, en la jornada del 28, los sublevados se hicieron definitivamente con la posición y con el resto del monte Belkoain.

6 Santutxo

Santutxoko mendi-lepoan zehar gudari-taldeek zenbait saraldi egin zituzten 1936ko abuztuaren amaieran, eta Urkizu auzotik, Tolosa ia bertaraino sartu ziren. Gainera, maniobra horiei esker matxinatuei Bidania herrira errepidez sartzea galarazi zieten.

A través del collado de Santutxo grupos de gudaris protagonizaron varias incursiones a finales de agosto de 1936, las cuales les situaron a las puertas de Tolosa desde el barrio de Urkizu. Estas maniobras también permitieron cortar a los sublevados el acceso por carretera a la población de Bidania.

7 Mandubia

Mandubia garrantzia bereziko lekua izan zen, Azpeitiko Komandantziak kontrolatutako lurraldearen hegoaldeko muturra defendatzeko. Horregatik, 1936ko abuztuaren amaieran, “posizio gotortuak” ezarri zituzten inguru horretan. Dena den, iraila hasieran, Mandubiko posizioa erreketen-talde batek hartu zuen (“Beasaingo ehun bat gizonek”).

Mandubia fue un enclave de especial relevancia en la defensa del extremo sur del territorio controlado por la Comandancia de Azpeitia. Por ello, a finales

de agosto de 1936 se establecieron en esta zona “posiciones fortificadas”. Sin embargo, a comienzos de septiembre la posición de Mandubia fue ocupada por un grupo de requetés (“por unos cien hombres de Beasain”).

8 Santa Marina

Irailaren 2an, Andatzarratetik aurrera egin eta Santa Marinako posizio aurreratua defendatzen zuen gudari-taldeak eraso odoltsua jasan zuen matxinatuen tropen aldetik. Hiru orduko borrokaldiaren ondoren, posizioa defendatzen zuten gudari gazteek, erreketen zutabeak atzera egitea lortu zuten. Dirudienez, biktimen artean hiru hildako gudari eta hamabi matxinatu izan ziren. Irailaren 9an eta 11n, Sasetak gidatutako erresistentziak berriz ere erasoari aurre egin zion posizio honetan.

El 2 de septiembre el grupo de gudaris que había avanzado desde Andatzarrate y defendía la posición adelantada de Santa Marina, sufrió un cruento ataque por parte de las tropas golpistas. Tras unas tres horas de combate, los jóvenes gudaris que defendían la posición lograron el repliegue de la columna de requetés. Al parecer, en el balance de víctimas se contabilizaron tres fallecidos por parte de los gudaris y doce del bando sublevado. El 9 y 11 de septiembre la resistencia dirigida por Sasetá volvió a repeler un ataque en esta posición.

9 Murumendi

1936ko irailaren 15ean, Luis Sansinenearen agindupeko 30 gudari osatutako talde batek, abuztuaren amaieratik matxinatuen eskuetan zegoen Murumendiko gailurra berreskuratu zuen. Dena den, gudarien ekintza goresgarriak ez zuen balio izan matxinatuen aurrerakadari eusteko, irailaren 19an Loiolako kuartela hartu baitzuten.

El 15 de septiembre de 1936 un grupo de 30 gudaris capitaneados por Luis Sansinenea recuperó la cima de Murumendi, en poder de los sublevados desde finales de agosto. Sin embargo, la meritoria acción de los gudaris no sirvió para contener el avance de los sublevados, que en la jornada del 19 de septiembre habían alcanzado el cuartel de Loiola.

10 Zarateko Benta

1936ko irailaren 19ko goizaldean, Donostia erori zenetik egun batzuk igaroak zirela eta Andatza irailaren 16an hartu ondoren, matxinatuek eskualdeko kuartel nagusia okupatu zuten, Zarateko Benta baserria. Kandido Sasetak leku hori aukeratu zuen bere agente-postua ezartzeko.

En la madrugada del 19 de septiembre de 1936, unos días más tarde de la caída de Donostia y tras la toma de Andatza el día 16, el cuartel general en la zona, el caserío Zarateko Benta, fue ocupado por los golpistas. Este lugar fue el elegido por Cándido Sasetá para establecer su puesto de mando.

11 Errezil

1936ko irailaren 19ko goizean, ordu batzuetako borrokaren ostean, Los Arcos teniente-koronel kolpistaren zutabeak Errezil hartu zuen. Herri hori hartu izanak bide eman zuen gudariak Loiolako kuartela korrika eta presaka uzteko. Saturraran (Mutriku) aldera erretiratzeko agindua Kandido Sasetá komandanteak berak eman zuen.

En la mañana del 19 de septiembre de 1936, tras varias horas de enfrentamiento, la columna del teniente-coronel golpista Los Arcos ocupó Errezil. La toma de esta localidad propició el abandono precipitado por parte de los gudaris del cuartel de Loiola. La orden de retirada hacia Saturraran (Mutriku) la daba el propio comandante Cándido Sasetá.



Kandido Sasetaren idazkia, bere borrokalariak erretiratzeko aginduz

"Une honetan, arratsaldeko ordu 2ak eta laurden diren honetan, Errexilgo kanpaiak entzuten dira herrira sartu diren etsaien zutabeen ohoretan. Ernion nago ni beste 15 gizonekin batera eta ahal dugun arte behintzat geure burua defendatuko dugu; izan ere, uste dut ostikadaka botako gaituztela eta Paulino (Paulino Uzcudun boxeolari ospetsua) etortzen bada, berriz, ukabilkadaka. Hiru zutabe 2 ordutik gora eduki ditugu gerarazita Bidania eta Errexil artean, baina jendearen indarrez, sartu eta herria okupatu dute. Ahal baduzue, bidali errefortzuak Iturrioz eta Zelatundik eta edatekoa ere bai, jendea hotzez baitago, ezer jan gabe eta lorik egin gabe.

Besarkada bat denei."

En este momento
2 y cuarto suenan
suenan las campanas
de Errexil en
honor de las columnas
mas enemigas que

acaban de entrar
en dicho pueblo.
Yo estoy con 15
hombres en Ernio,
donde nos defende-
remos mientras podamos
pues creo nos echaran
pues creo nos echaran

Manuscrito de Cándido Saseta ordenando la retirada de sus combatientes

"En este momento 2 y cuarto tarde suenan las campanas de Errexil en honor de las columnas enemigas que acaban de entrar en dicho pueblo. Yo estoy con 15 hombres en Ernio donde nos defenderemos mientras podamos pues creo nos echaran a patadas, y si viene Paulino (el famoso boxeador Paulino Uzcudun) a puñetazos en cuanto se lo propongan. Hemos tenido detenidas las tres columnas entre Bidania y Errexil más de 2 horas, pero a fuerza de gente han entrado ocupando el pueblo. Enviadnos si podéis refuerzos por Iturrioz y Zelatun, y algo de beber, pues la gente está aterida de frío, sin comer ni dormir ni nada.

A todos un abrazo."

2) a patadas, y si
viene Paulino a
puñetazos, en
cuanto se lo pro-
pongan. Hemos
tenido de-
tenidas las tres co-
lumnas entre Bidania
y Errexil más de
2 horas, pero a fuerza
de gente han entrado
ocupando el pueblo.
Enviadnos si podéis
refuerzos por Iturrioz
y Zelatun, y algo de
beber, pues la gente
está aterida de frío,
sin comer ni dormir
ni nada.

3) Zelatun y algo
de beber, pues la gente
está aterida de frío,
sin comer ni dormir
ni nada.

A todos un abrazo."



Creo llegado el momento de que
marchéis a Satur-
raran, llevando ropas
y efectos de retaguar-
día. Si se pueden
llevar mis baúles

están las llaves
ahí mismo; entregadlas
en Bar Andonegi
(Motriko) a mis padres.
Ánimo y cada uno
en su puesto.

**"Uste dut iritsi dela zuek Saturrarana joateko
unea, hara arropak eta atzeguardiako gauzak
eramateko. Kutxa gehiago eramaterik balego,
hortxe daude giltzak. Utzi Andonegi tabernan
(Mutrikun) nire gurasoei. Eutsi goiari eta bakoitza
bere lekura."**

(Kándido Saseta).

**"Creo llegado el momento de que marchéis a
Saturran llevando ropas y efectos de
retaguardía. Si se puede llevad mis baúles están
las llaves ahí mismo; entregadlas en Bar Andonegi
(en Motriko) a mis padres. Ánimo y cada uno en
su puesto."**

(Cándido Saseta).






"Cándido Sasetari omenaldia"

Javier Sagarzazu margolariaren akuarela

Acuarela del artista Javier Sagarzazu


Hondarribia - 2008



ONDORIOAK

Eusko Gudarosteak hilabete eta erdiz izandako jarduera oso garrantzitsua izan zen, kolpistek Gipuzkoa barrualdean izandako aurrerakada geldiezina eteteko. Horri esker, euskal alderdi politikoei eta agintariei denbora gehiago izan zuten, eta horrela, Autonomia Estatutua onartu, Eusko Jaurilaritza eratu eta Eusko Gudaroste instituzionalizatu sortu ahal izan zituzten.

Azken horren batailoietan engaiatuta geratu ziren 1936ko udan Azpeitira joandako boluntario gehienak. Gerora, gutxienez 184 gerra-kontseiluetan epaituak izan ziren eta 66 langile-batailoietan atxilotuta. Frontean hildakoez gain, beste hiru fusilatuak izan ziren heriotza-zigorren ondoren: Jose Azurmendi Bastarrica, Jose Antonio Eizagirre Epelde eta Jose Placer Martínez de Lecea. Alfonso Maria Moreno jesuitak gogoratzen zituen EAE-ANVko Placer komandanteak fusilatze-pelotoiaren aurrean esandako azken hitzak: *“Gora Euskadi Askatuta!”*



I CONSECUENCIAS

La actividad de Eusko Gudarostea durante un mes y medio fue crucial en la interrupción de la marcha imparable de los golpistas por el interior de Gipuzkoa. Este hecho permitió ganar tiempo a las fuerzas políticas y autoridades del país, tiempo que permitió la aprobación del Estatuto de Autonomía, la constitución del Gobierno Vasco y la formación del Ejército Vasco.

En sus batallones quedaron enrolados la mayor parte de los voluntarios que acudieron a Azpeitia en el verano de 1936. Posteriormente, al menos 184 fueron juzgados en consejos de guerra y 66 reclusos en batallones de trabajadores. Además de los fallecidos en el frente, tres más fueron fusilados tras ser condenados a pena de muerte, José Azurmendi Bastarrica, José Antonio Eizagirre Epelde y José Placer Martínez de Lecea. Sobre Placer, comandante de EAE-ANV, el jesuita Alfonso María Moreno recordaba sus últimas palabras ante el pelotón de fusilamiento: *“Gora Euskadi Askatuta!”*



maite den
askatasunari

Azpeitia
Denontzat



aranzadi
zientzia elkarte